

Gardentasuna, informazio publikoaren eskuragarritasuna eta gobernu onaren irizpideak izan behar dira ekimen politiko ororen ardatz nagusiak. Soilik, arduradun politikoek ekimenak aztertzen direnean, herritarrek heuri eragiten dizkien erabakiak nola hartzen diren ezagutzen dutenean, diru publikoa nola erabiltzen den ezagutzen denean, edo geure erkundeek agintzeko dituzten irizpideak ezagutzen ditugunean, orduan hitz egin ahal izango dugu prozesu berri baten inguruan, non botere publikoek kritikoa, zorrotza eta parte hartze handia eskatzen duen gizarte bati erantzuten hasiko dion.

EAJ-rentzat, gardentasuna lehentasunezko gaia da. Eta horregatik, gardentasuna bermatuko duen edozein ekimenaren alde egingo dugu, kargu publikoaren inguruko informazio guztia zabalduz, kontratuak direla, diru-laguntzak edo eta hitzarmenak direla, herritarrek zergetatik datorren euro bakoitza zertan eta nola inbertitzen den ezagutu dezaten. Parte-hartze aktiboaren formula berrietan ere sinisten dugu, eta herri-ekimenak aintzat hartu behar direlakoan gaude. Hori dela eta, tresna erabilgarri bat lortu behar dugula pentsatzen dugu, herritarrok udalean hartzen diren erabakien inguruko informazioa osoa eskuratu dezagun.

Helburu hau lortzeko lagungarria izan daitekeen, eta gaur gaurkoz teknikoki egingarria eta koste gutxikoa den neurri bat ondorengoa izan daiteke: udalbatzen saioen grabazioak herritarren eskura uztea. Horregatik guztiagatik, EAJ udal taldeak udalbatzar honek ondorengo erabakiak hartu ditzala proposatzen du:

- 1.- Udalbatza guztiak zuzenean ematea streaming bidez.
- 2.- Informazioaren eskuragarritasuna bermatzea, gai zerrendak, aktak eta udalbatzarreko-lan dokumentuak modu eskuragarri eta ulergarrian publikatuz eta hori formatu irekian egiten dela ziurtatuz.
- 3.- Udal webgunean gune zentralizatu bat sortzea aipa informazioa modu azkarrean eskuratu ahal izateko.
- 4.- Youtubeko kanal bat sortzea, udalbatzarren saioak eskuragarri izateko.